

Julen, egunero bezala, gaur ere ikasten ari da bere logelan. Hala ere, ohitura batzuk aldatu behar ditu denboraldi horri etekin handiena ateratzeko.
Lagundu egingo diogu.

Topatu sei akatsak.




Hemen akats bat gutxiago daukagu. Zein?



MUSIKA. Ikasteko musikarik ez.

Zer kendu du Julenek mahai gainetik?



MUGIKORRA. Oso ondo! Ikasteko mugikorrarik ez.

Zer gertatu da argiarekin?



Ezkerrarekin idazten baduzu, **ARGIA** eskuinean.

Zein liburu agertu da apalategian?



HIZTEGIA. Ikasteko orduan beti zure ondoan.

Begiratu oinak!



OINAZAL OSOA zoru gainean.

Noiz ikasi behar du Julenek?



EGUNEZ. Gaez nekatuegi gaude.